Bestelako Xedapenak

KULTURA SAILA

5633

EBAZPENA, 2010eko urriaren 14koa, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearena, Kulturako sailburuaren 2010eko uztailaren 28ko Aginduan azaltzen den diru-kopurua handitzen duena. Agindu horren bidez, Ikus-entzunezko, Antzerki, Dantza eta Musikaren kultur arloetan jaialdiak, zikloak, lehiaketak eta sariketak antolatzeko dirulaguntzak emateko araubidea ezarri eta 2010erako deialdia egin zen.

Kulturako sailburuaren 2010eko uztailaren 28eko Aginduak (EHAA, 153. zk., 2010eko abuztuaren 11koa) Ikus-entzunezko, Antzerki, Dantza eta Musikaren kultur arloetan jaialdiak, zikloak, lehiaketak eta sariketak antolatzeko diru-laguntzak emateko araubidea ezarri eta 2010erako deialdia egin zuen.

Kontuan izanda aurkeztu den eskabide-kopurua, dirulaguntzen onuradun gerta daitezkeenek garatuko dituzten egitasmoen garrantzia eta, ondorioz, eskatutako diru-laguntzen zenbatekoa, Kultura, Gazteria eta Kirol Sailburuordetzak, Agindu honen lehenengo Xedapen Gehigarrian aurreikusten denari jarraiki, beharrezkotzat jo du aipatutako Aginduan azaltzen den diru-kopurua moldatzea. Egingo den aldaketa Aginduaren xedera zuzendutako diru-kopurua handitzea izango da. Izan ere, hori eginez, egitasmoen bideragarritasuna bermatu ahal izango da. Badago horretarako Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan behar den besteko aurrekontu-dotazio egokia.

Hori dela eta, hau

EBATZI DUT:

2010eko uztailaren 28ko Aginduaren 2.2 artikuluan azaltzen den diru-kopurua moldatzea, Agindu bereko lehenengo Xedapen Gehigarrian aurreikusitakoaren babesean. Ondoko era honetan geratuko da idatzita:

«2.– Agindu honen babesean emango diren dirulaguntzak finantzatzeko kredituaren zenbateko orokorra hirurehun eta hogeita bost mila (325.000) eurokoa izango da.»

Vitoria-Gasteiz, 2010eko urriaren 14a.

Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordea,
ANTONIO RIVERA BLANCO.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE CULTURA

5633

RESOLUCIÓN de 14 de octubre de 2010, del Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes, por la que se incrementa la cantidad que aparece en la Orden de 28 de julio de 2010, de la Consejera de Cultura, por la que se regula el régimen de concesión de subvenciones para la organización de festivales, ciclos, concursos y certámenes de las áreas culturales de Audiovisuales, Teatro, Danza y Música, y se efectúa la convocatoria para el año 2010.

La Orden de 28 de julio de 2010, de la Consejera de Cultura (BOPV n.º 153, de 11 de agosto de 2010), reguló el régimen de concesión de subvenciones para la organización de festivales, ciclos, concursos y certámenes de las áreas culturales de Audiovisuales, Teatro, Danza y Música, y efectuó la convocatoria para el año 2010.

Teniendo en cuenta la cantidad de solicitudes presentadas, la importancia de los proyectos que desarrollarán los beneficiarios y, por tanto, la cantidad de las subvenciones solicitadas, la Viceconsejería de Cultura, Juventud y Deportes, de acuerdo con la previsión contenida en la Disposición Adicional primera de esta Orden, ha estimado necesario adaptar la cantidad de dinero que aparece en la citada Orden. Dicha adaptación consistirá en el incremento de la cantidad de dinero, con objeto de garantizar la viabilidad de los proyectos. Existe para ello dotación presupuestaria suficiente en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma Vasca.

En su virtud,

RESUELVO:

Incrementar la cantidad de dinero que aparece en el artículo 2.2 de la Orden de 28 de julio de 2010, al amparo de lo previsto en la Disposición Adicional primera de la misma Orden. Quedará redactado de la siguiente manera:

«2.– El importe global del crédito destinado a financiar las subvenciones que se concedan al amparo de esta Orden es de trescientos veinticinco mil (325.000) euros.»

En Vitoria-Gasteiz, a 14 de octubre de 2010.

El Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes,
ANTONIO RIVERA BLANCO.